



5. modulua: Eskola gaitasunak eta curriculumak

DIZIPLINARTEKO LANAREN GIDA

Ipuin bati begirada anitzak

AURKIBIDEA

1. Dal-aren aurkezpena eta araudia	3
1.1 DALaren aurkezpena	3
1.2. DALaren araudia	3
2. DAL-aren GARAPENA	4
2.1. Proiektuaren faseak	4
2.2. Lanaren kronologia	7
2.3. Tutoretzak eta Lanaren entregak	8
3. DAL-aren ebaluazioa	8
3.1. Ebaluazioaren orokortasunak	8
3.2. Ebaluazio irizpideak	8
3.3. Ebaluazioan kontuan hartzeko	10
4. Bibliografia	11
5. Eranskinak	12
5.1. Justifikaziorako autoebaluzio galderak	12

1. DAL-AREN AURKEZPENEA ETA ARAUDIA

1.1 DALaren aurkezpena

5. modulua ("Eskola gaitasunak eta curriculum") Haur Hezkuntzako Graduko 3. mailako lehen lauhilekoan egiten da. Modulu honetan garatu beharreko Moduluko Diziplinararteko Lanaren (DAL) izenburua "**Ipun bati begirada anitzak**" da. Lan honetan Haur Hezkuntzan ipuin bat diziplinarartekotasuna aintzat hartuz nola landu daitekeen azaldu eta justifikatu behar da. Diziplinarartekotasun hau 3.mailako lehen lauhilabeteetan lantzen diren ikasgaiak kontuan hartuz landu beharko da. DAL-k 2 kreditu balio ditu (10 asteko moduluen egitura berezia dela), eta irakasgai hauekin dago lotuta:

- Arte Plastikoak eta Ikusizko Kultura Haur Hezkuntzan II (6 kr.)
- Garapen Psikomotorra II (6 kr.)
- Hizkuntzaren Didaktika eta Atzerriko Hizkuntza (Ahozko hizkuntza, 5 kr.)

Ikasleek gutxi gorabehera 50 lanordu beharko dituzte DALa egiteko (20 ordu bertaratuta), beraz, 2 kredituko balioa du. Beraz DALari eskaini beharreko denbora irakasgai bakoitzaren % 10ekoa da, beraz, kalifikazioa 10etik 1ekoa izango da lanarekin lotura duen irakasgai bakoitzean¹. DALa egin behar ez dutenen kasuan, irakasgaiaren nota 10en gainean izango da, DALaren portzentajea aplikatu gabe.

1.2. DALaren araudia

Haur Hezkuntzako curriculum zehaztu, eta Euskal Autonomia Erkidegoan ikaskuntza horiek ezartzen dituen abenduaren 22ko 237/2015 DEKRETUAREN 7. artikuluen arabera (EHAA, 2016ko urtarrilaren 15ekoa), Haur Hezkuntzak haurren zenbait oinarrizko diziplina-konpetentzia garatzen lagunduko du:

- a) Hizkuntza- eta literatura-komunikaziorako konpetentzia
- b) Matematikarako konpetentzia
- c) Zientziarako konpetentzia
- d) Teknologiarako konpetentzia
- e) Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia
- f) Arterako konpetentzia
- g) Konpetentzia motorra

Gaitasun horiek lantzeko, Haur Hezkuntzako haurrek eskola aldi bakoitzean ikasiko dituzten edukiak eta baliabideak eta gauzatuko dituzten jarduerak hautatu behar dira. Haur Hezkuntzako Graduko 3. mailan arreta berezia eskainiko diegu ikasleek

¹ Hizkuntzaren Didaktika eta Atzerriko Hizkuntza irakasgaiaren kasuan, urteko irakasgaienez, DALaren balioa lehenengo lauhilabeteetan lantzen den irakasgaiaren zatiaren kalifikazioaren %10a izango da.

prestakuntza integralerako oinarritzakoak diren **hezkuntza baliabideei**, horretarako 5. moduluko Diziplinarteko Lanetan **“ipuinak”** landuko direlarik.

Nork egin behar du DAL-a?

Ikasle guztiek egin beharko dute DALa baldin eta 5. moduluko hiru ikasgaietan matrikulatuta badaude. Hurrengo salbuespenetan izan ezik:

1. 5. Moduluko ikasgai batean edo bitan bakarrik matrikulatuta dauden ikasleak.
2. Mugikortasun programetan parte hartzen ari diren ikasleek egindako hitzarmen motaren arabera DALa ez dute egin beharrik izango (kontsultatu moduluko koordinatzaileari).
3. Aldi berean bi modulu egin behar dituzten ikasleek (irakasgai batzuk baliozkotuta edo gainditu gabe dauzkatelako) irakasgai gehien egiteko dituzten moduluko DALa egin beharko dute soilik. Bi moduluetan egin beharreko irakasgai kopurua bera bada, goreneko mailako moduluan egingo dute DALa.
4. Titulazioa modularra denez, eta lanak diziplina arteko edukia duenez, ikasleak jarraikako ebaluazio sisteman parte hartu ezin badu **justifikatutako arrazoiengatik** (lan-arrazoiak, senideak beren kargura izatea, %33ko urritasuna edo hortik gorakoa, maila altuko kirolaria izatea, bidaiak egitea edo dedikazio handia eskatzen duen jarduera artistiko edo kulturalen bat garatzea, goi mailako beste ikasketa batzuekiko bateragarritasuna, kargu politiko, sindikal, elkarte edo GKEren bateko karguren batekiko bateragarritasuna edo bestelakoak), DAL horrekin erlazionatutako proposamena egin beharko du, idatziz eman eta ahoz defendatu, modulu bakoitzean horretarako zehaztuko den datan.

Egoera horretan dauden ikasleak moduluko koordinatzailearekin (edo titulazioko koordinatzailearekin) jarri beharko dira harremanetan kurtsoaren lehenengo lau asteetan zehar, eta honek behar dituzten informazioak emango die, hala nola, lana entregatzeko eta defendatzeko data zein tokia; lan horretarako ez da egongo tutorerik eta ikasleak dagokion arloko irakaslearengana jo beharko du zalantzak argitzeko.

Honen inguruan zalantzak izatekotan jo ezazu “Moduluak. Oinarritzako galderak” dokumentura

(<https://www.ehu.eus/documents/2955630/10132805/Moduloak+oinarritzako+galderak+20190416def.pdf>)

2. DAL-AREN GARAPENA

2.1. Proiektuaren faseak

DALaren antolaketa hauxe izango da:

1. Taldeak sortzea

Lana egiteko ikas-taldeak ikasleek eurek antolatuko dituzte ikasturteko lehen astean adieraziko zaien ikasle kopuruan eta irakasleei taldearen izena eta partaideak esango dizkiete. Talde bakoitzari 5. Moduluko irakaslea den tutore bat esleitu zaio lauhilabetearen bigarren astea.

2. Ipuinaren aukeraketa eta justifikazioa

Haur Hezkuntzako hurrei zuzendutako ipuin baten bertsio argitaratu bat bilatu, aukeratu eta justifikatu beharko da laneko lehen fase honetan. Ipuina hautatzeko, taldeko ikasle bakoitzak 5 ipuin aukeratu beharko ditu gero ikas-taldean erakutsi eta denen artean aukeraketa egiteko. Bilaketa egiteko liburutegiak (UPV/EHU, herri liburutegiak...) bisitatzea komeni da. Aurkitutako liburu guztien landuko den ipuina aukeratu beharko da moduluko ikasgaien gaitasunak eta edukiak lantzeko duten egokitasuna aztertuz Haur Hezkuntza etapa kontuan hartuz. Ipuinaren gaia, ezaugarri formalak eta abarrekoak ere kontuan hartu daitezke. Aukera egongo da ipuin osoa lantzeko, edo ipuinaren zati bat, edo eszena bat, edo ipuinaren beste edozein alderdi ere.

Talde bakoitzak lanaren txosten idatzian lehen zatian bere hautaketa justifikatu beharko du:

- Zergatik landuko du liburu hau? Zein ezaugarri ditu liburu honek egoki bihurtzen dutenak?
- Zein beste ipuin baloratu ditugu eta zergatik utzi ditugu kanpoan?
- Zein da erabiltzearen helburua? Mezu edo ideia bereziren bat transmititzen du?
- Zer ekarpen egiten du haurren garapenerako?
- Egokia al da moduluko hiru irakasgaiak lantzeko? Nola erlazionatzen da irakasgai bakoitzaren eduki espezifikoekin?
- Zergatik uste duzue haurren adinarentzako egokia dela? Justifikatu
- Nola uste duzu taldearen beharretara egokitzen dela?
- Zein arazo egon daitezkeela aurreikusten duzu? Nola egingo diezue aurre arazo hauei?
- Zein jarduera edo ekintza didaktiko mota bururatzen zaizkizue lehen begi-kolpean?

Justifikazioa egiteko aipamenak erabili beharko dira APA arauak 6. edizioa kontuan hartuz.

3. Proposamena eta honen justifikazioa

Lanaren bigarren zatian aukeratutako ipuina erabiliz Haur Hezkuntzako ikasgela batean lantzeko proposamen bat egin beharko dute, hiru irakasgaitan jasotako proposamenak edo landutako ideiak kontuan hartuta. Ipuina berritzailea izan nahi duen proposamenaren abiapuntua baino ez da izango, lanak eskaintzen dituen

aukerak mugagabeak direlarik. Hala ere, taldeak ipuinarekin ikasgelan lan egiteko bere proposamena zehaztasunez azaldu eta justifikatu beharko du.

Fase honen helburua proposamena diseinatzea da ikuspegi diziplinarteko baten bidez. Horrez gain, ikasleek Haur Hezkuntzako haurrak ipuinean parte hartzera nola anima daitezkeen pentsatu eta proposamen horren bidez zer lortu nahi den eta nola erabiliko luketen adierazi beharko dute ere. Gainera, haur hezkuntzako haurren adin/ziklo desberdinetarako egin daitezkeen egokitzapenak hartu beharko dituzte kontuan.

Proposamenean zehaztasuna eta koherentzia bilatuko da bai ipuinarekiko eta bai haur hezkuntzako haurren ezaugarri zehatzentzako. Hau da, beste irakaslea batek proposamena irakurriko balu, gai izan beharko litzateke proposamena aurrera eramateko. Orientabide moduan proposamen didaktikoak ondorengo informazioa jaso dezake:

Haur-hezkuntzako ikasle taldearen ezaugarriak (hipotetikoak): adina, kopurua, testuingurua (ikastetxearen ezaugarriak...)

- Kronograma
- Jardueren segida
- Jardueren helburuak
- Jardueren deskribapena
- Materialak
- Ebaluazioa
- Behar espezifikoak dituzten ikasleentzako egokitzapenak
- ...

Kontuan hartu, proposamena diziplinartekoa izan behar dela, eta ezin direla ekintza edo jarduera isolatuak planteatu, hau da, ikasgai bakarra lantzen duten jarduerak proposatu. Jarduerak hiru edo bi irakasgaia aldi berean landu behar dituztela nahiz eta diziplina bat besteei gailendu.

Proposamen didaktikoaz gain, hau osatzen duten jarduera guztietan hiru ikasgaien erabilpena justifikatu behar da aipamenak eta APA arauak 6. edizioa (2009) erabiliz.

4. Lanaren aurkezpena

Lan bi modutan aurkeztu beharko da:

- a) Aurkezpena: Talde handiko aurkezpena egingo da kurtsoaren azken astean. Honetarako ikasgai bakoitzetik 2 ordu (klase egun bat) hartuko da. Beraz talde bakoitzak 30 minutu inguru izango ditu bera lanaren aurkezpena egiteko. Hemen ipuina, ipuinaren aukeraketaren justifikazioa, proposamena eta honen justifikazioa azaldu beharko da.
- b) Idatzitako txostena: Talde handiko aurkezpena egiten den egun berdinean aurkeztu beharko da. Txosten hau gehienez 20 orrialde izango ditu eranskinak kontuan hartu gabe. Lanak ondorengo informazioa izan beharko du: ipuinaren justifikazioa, proposamena proposamenearen justifikazioa eta

jarraitutako prozesuari buruzko Taldeko Azken Hausnarketa objektiboa. Hausnarketa honetan laneko eduki eta gaitasun espezifikoiei egin beharko zaie erreferentzia. Lana, lan guztiak bezala, azala, aurkibidea eta erreferentzien zerrenda (APA 6. Edizioa, 2009) izan beharko du. Horrez gain eranskinetan taldeko bileren aktak ere jaso beharko ikasle-taldeak egoki iruditzen zaizkien dokumentuaz gain.

2.2. Lanaren kronologia

Lauhilabete hau oso laburra berehala ebaluazio garaia ailegatzeko da. Horregatik modulo honen irakasleak taldeak honako kronograma hau proposatzen die ikasleei.

Astea	Ikasleek egitekoa	Tutoretzak eta entregak	Irakasleak egiteko
1. astea	Taldeak eratzea*	Taldearen izena eta taldekideak	Ikasgai bakoitzetik 2 ordu ematea
2.astea	Ipuinak bilatzea	1. tutoretza: ipuinen aukeraketa	Tutorea esleitzea
3.astea	Ipuina aukeratzea eta justifikatzea. Txostena idazten hasi		Hizkuntzaren didaktikan DAL 2 ordu
4.astea	Ipuina aukeratzea eta justifikatzea		
5.astea	Ipuina aukeratzea eta justifikatzea	1. Entrega: Ipuinaren aukeraketaren justifikazioa	Garapen Psikomotorra DAL 2 ordu
6.astea	Proposamena diseinatzea eta justifikatzea	2. tutoretza: proposamenerako ideia garatuak	
7.astea	Proposamena diseinatzea eta justifikatzea		Arte plastikoak DAL 2 ordu
8.astea	Idatzizko txostena bukatzea		
9.astea	Aurkezpena prestatzea		Aurkezpen data ematea + tutoretzak
10.astea	DAL aurkeztea: idatzizko txostena+klaseko aurkezpena*	2.entrega: idatzizko txostena 3. tutoretza: lanaren ebaluazio	Ikasgai bakoitzetik 2 ordu ematea DALa aurkezteko + ebaluazio tutoretza

*ezinbesteko datak dira.

Kronograma hau ez da derrigorrezkoa betetzea, baina bai oso lagungarria lana eguneratua eramateko eta azkeneko arazorik ez izateko. Dena den, kontuan hartu tutoretzak eta entrega ebaluagarriak direla. Bete behar diren bi data bakarrak

ikasle-taldea sortzea eta lana entregatzea da.

2.3. Tutoretzak eta Lanaren entregak

Lanaren garapen egokirako eta jarrikortasuna bermatzeko tutoretza saioak adostu beharko dira tutorearekin, gutxienez bi lauhilabetean zehar eta azkeneko bat bukaeran, lanaren azken ebaluazioa egiteko. Horrez gain, lanaren bitarteko entrega bat egin beharko da.

1. 1. Tutoretza. Ipuinen aukeraketa. Ikasle taldea, ikasle bakoitzak ekarritako liburuetatik lehen aukeraketa bat egin beharko dut. Hortik geratzen diren liburuekin, tutorearekin tutoretza bat adostuko da. Eramanten diren ipuinen azterketa eta ildo eztabaidatuko da tutoretza honetan.

2. 1. Entrega. Ipuinaren aukeraketaren justifikazioa. Irakasle tutoreari ipuinaren justifikazioa entregatu beharko zaio. (Hau ondo egiten ari zareten jakiteko, eranskinetako "Justifikazioaren autoebaluziorako galderak" erabili ditzazkezue).

3. 2. tutoretza. Proposamenareko ideiak garatuta. Irakasle tutoreari proposamenaren ideak garatuta aurkeztuko zaizkio.

4. 2.entrega. Idatzitazko txostena. Bukaerako txostenaren entrega egingo da.

5. 3. tutoretza. DAL-aren ebaluazioa. DALaren ebaluazioa egingo da saio honetan.

3. DAL-AREN EBALUAZIOA

3.1. Ebaluazioaren orokortasunak

Proba horren balioa modulu honetan DALari dagokion berdina izango da, hau da, %10a irakasgai bakoitzaren kalifikazioan. DAL horren kalifikazioa ezohiko deialdira arte gordeko da (ekaina-uztaila). DALa suspenditzen duen ikasleak DAL horrekin erlazionatutako proposamena egin beharko du, idatziz eman eta ahoz defendatu, modulu bakoitzean horretarako zehaztuko den datan (ez-ohiko deia diren barruan).

Ikasgaiaren arabera, DALa gainditzea ezinbesteko baldintza da ikasgaia ere gainditzeko. Egoera hau ezagutzeko, begira ezazu ikasgai bakoitzaren programa edo gida.

DALaren ebaluazioa jarriatua izango da eta modu honetan egingo da:

- Txosten idatziaren balorazioa (%50)
- Klase aurrean egiten den aurkezpenaren balorazioa (%25)
- Klasean eta tutoretza saioetan parte hartze aktiboa (%25)

3.2. Ebaluazio irizpideak

Txosten idatziaren balorazioa (%50)

Txosten idatzia ebaluatzeko ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

- Hizkuntzaren erabileraren egokitasuna: ortografia, gramatika, hiztegia, egokitasuna eta zuzentasuna
- Diskurtsoaren ulergarritasuna: eduki/ideien antolaketaren koherentzia, kohesioa eta sakontasuna
- Kalitatezko informazio iturri oparoak erabiltzea
- Aipamenen erabileraren egokitasuna (APA arauak 6. edizioa)
- Erreferentzien zerrendaren egokitasuna (APA arauak 6. edizioa)
- Ipuinaren aukeraketa ebaluazioa eta justifikazioa alderdi sintaktiko, semantiko eta pragmatikotik.
- Ipuinaren aukeraketa ebaluazioa eta justifikazioa garapen kognitibo, emozional eta motorretik.
- Ikus-kulturari lotutako hizkuntza kontutan hartzen du, elementu formalak transmititzen dituzten kodigoak ulertuz eta modu esanguratsu aztertu.
- Haurren garapen linguistiko, psikomotorra eta artistikoa sustatzeko jardueren egokitasuna eta deskribapena
- Proposamen plastiko esanguratsua egiteko gai da, estetikoki zaindua, transmititu nahi den esanahiaren araberakoa eta ez estereotipatua
- Hurrei adina eta gaitasunei egokitutako diziplinarteko jardueren justifikazioa egokitasuna

Aurkezpenaren ebaluazioa (%25)

Aurkezpena ebaluatzeko ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:

- Hizkuntzaren erabileraren egokitasuna (hizkuntza, hizkera, gramatika lexikoa...)
- Gorputz jarrera/ahots-tonua
- Gairen inguruko edukia eta ulermena
- Aurkezpenaren kalitatea: sormena, originaltasuna eta berrikuntza
- Ipuinaren aukeraketaren justifikazioa hizkuntzaren didaktika, garapen psikomotorra eta arte plastikoen ikuspuntutik
- Proposamenaren diziplinartekotasuna eta honen justifikazioa

Tutoretza-saioak (%25)

- Aurkezpena ebaluatzeko ondorengo irizpideak hartuko dira kontuan:
- Tutoretza saioetan adostutako lanaren kalitatea, koherentzia eta

sakontasuna

- Entregaren kalitatea, koherentzia eta sakontasuna
- Entregaren APA arauen egokitasuna
- DAL-a lantzeko saioetako jardueren kalitatea eta sakontasuna
- Talde lana (egitekoak banatu, helburuak eta plana adostu eta jarraitu,...): aktak
- Moduluko gidari jarraitzea

3.3. Ebaluazioan kontuan hartzeko

Hizkuntza gaitasuna

Hizkuntzaren erabilera zuzena ezinbestekoa da. Adierazpide linguistiko zuzena eskatuko da eta akatsak oso nabariak direnean, edo testua ulergaitza denean – beste hizkuntzetatik itzultzeagatik edo hizkuntzaren adierazpide okerra erabiltzeagatik–, lana ez da zuzenduko, ikasleak edo taldeak lana zuzen egin arte. Aspektu hauek hartuko dira kontuan:

- Koherentzia, kohesioa, egokitasuna eta zuzentasuna.
- Diskurtsoaren ulergarritasuna.
- Hiztegia eta ortografia.
- Ergatiboa eta komunztadura.

Plagioa

Ezin da beste batek egindako obraren kopia edo imitazioa aurkeztu, norberak egina balitz bezala. Ikasleek aipamen arauak (APA arauak, 6. Edizioa, 2009) ezagutu eta erabili beharko ditu. Plagioa egin dela susmatzen bada, txosten osoa baztertuko da eta DAL ez da gaindituko deialdi horretan.

4. BIBLIOGRAFIA

Blake, Q., Eccleshare, J. (2010). *1001 libros infantiles que hay que leer antes de crecer*. Barcelona: Grijalbo.

Bryant, S. (1993). *El arte de contar cuentos*. Barcelona: Nova Terra.

Colomer, T. (2010). *Introducción a la literatura infantil y juvenil actual*. Madrid: Síntesis.

Díaz, F. (2007). *Leer y mirar el libro álbum: ¿Un género en construcción?*. Bogotá: Norma.

Durán, T. (2002). *Leer antes de leer*. Madrid: Anaya.

Durán, T. (2009). *Álbumes y otras lecturas*. Barcelona: Octaedro.

Hoster, B., Lobato, M.J. (2007). Iniciación a la competencia literaria y artística a través del álbum ilustrado. *Lenguaje y textos*, 26, 119-134.

Behinola aldizkairia.

5. ERANSKINAK

5.1. Justifikaziorako autoebaluzio galderak

1. Modu egokian justifikatu da ipuinaren aukeraketa?

Galdera	Orria(k)/Paragrafoa(k)
Zergatik landuko du liburu hau? Zein ezaugarri egiten du egoki liburu hau? Zein beste ipuin baloratu ditugu eta zergatik utzi ditugu kanpoan?	
Zein da erabiltzearen helburua? Mezu edo ideia bereziren bat transmititzen du?	
Zein ekarpen egiten du hurren garapenerako?	
Egokia al da moduloko hiru irakasgaiak lantzeko? Nola erlazionatzen da irakasgai bakoitzaren eduki espezifikoeekin?	
Nola uste duzu taldearen beharretara egokitzen dela?	
Zergatik uste duzue hurren adinarentzako egokia dela? Justifikatu	
Zein arazo egon daitezkeela aurreikusten duzu? Nola egingo diezue aurre arazo hauei?	
Zein jarduera edo ekintza didaktiko mota bururatzen zaizkizue lehen begi-kolpean?	

2. Idazkera akademikoa, informazio iturriak, aipamenak eta erreferentziak

Irizpidea	Inoiz ez/batzutan/beti
Idazkera formala eta egokia erabiltzen da	
Hiztegia aberatsa da eta gaiari lotutako terminoak erabiltzen dira	
Ortografia eta gramatika zuzena da	

Erabilitako informazio iturriak fidagarriak dira: argitaratutako liburuak eta artikulak, adituek idatzitako weborriak edo blogak, instituzioen weborri ofizialak.	
Ideiak indartzeko aipamenak erabiltzen dira APA formatuan (parafraseartzen edo literalki erabiliz)	
Erreferentzien zerrrenda 6. Edizioa jarraitzen du: ordenu alfabetikoz, artikulak, liburuak, liburu kapituluak bereizten dira...	